

1. Lotu pertsonai mitologikoaren irudia bere ezaugarriekin. Ondo irakurritz gero lan erraza da. Saia zaitez!

Basoan bizi da. Oso indartsua da, garaia, bizarduna eta ile luze-duna; ilea belauetaraino iristen zaio eta ia gorputz osoa estaltzen dio. Basajaun deitzen da.



Dama dotorea eta ederra da Jenio guztien ama. Etxe asko ditu eta denak gure mendietako leizeetan: Anboton, Aizkorri, Txindokin, Murumendi, Gorbeian eta abar. Anbotoko Mari deitzen da.



Begi bakarreko izaki gaiztoa da. Basoan dauden haitzuloetan bizi da eta gazteak harrapatu eta jan egiten ditu. Tartalo deitzen da.



Suge itxura du eta, suzko igitai bailitza, zerua zeharkatzen du. Ekaitz eta trumoiak hurreman estua du. Sugaar du izena.



- Anbotoko Mari

Mari, Euskal mitologiako pertsonai garrantzitsuenetakoa da, nagusia delako. Emakume itxurarekin agertzen da lurlean bizi direnen artean. Naturaren eta naturaren inguruan dauden elementu guztien erregina da.

Herri guztietan ez zioten izen berdinarekin ezagutzen, herri bakoitzean

izen batez ezagutzen zitzaion: Txindokiko Mari, Anbotoko Mari, Mari Muruko,...



Justizia defendatzen zuen eta injustiziak ez zituen gustuko. Berarentzat, gezurrak esatea, lapurtzea eta esandakoa ez egitea, errespetu falta bat zen. Lagun ona izatean sariak ematen zituen.

Marik, Naturaren indarra irudikatzen du, naturaren erregina delako. Esaten zuten, Mari herrietara gerturatzen zenean ekaitza ekartzen zuela berarekin.

Mari haitzuloetan bizi da eta edozein bere kobazuloetan sartzeagatik zigortu egiten du. Ezin da bere aurrean eseri ezta bizkarra eman.

Marik senar ezberdinak ditu, herrien arabera. Oñatin, “Maju jeinua” bere senarra dela diote. “Goierri”, Sugaar dela bere senarra esaten dute.

1. Aukeratu erantzun zuzena:

- **Zein da Marik duen itxura?**

Emakume baten itxura

Animali baten itxura

Ekaitzaren itxura

- **Zeren erregina da?**

Pertsonen erregina

Animalien erregina

Naturaren erregina

- **Zer ez zaio gustatzen?**

Lagun ona izatea

Lapurtzea

Justizia betetzea

- **Non bizi da?**

Basoan

Haitzuloetan

Mendian

2. Esan esaldi hauek egia edo gezurra diren:

Marik herriaren arabera izen desberdin bat du.

Marik berarekin eguzkia ekartzen du.

Batzuk Basajaun bere senarra dela esaten dute.

Lagun ona izateagatik pertsonak saritzen ditu.

Berarekin hitz egiteko bizkarra eman behar zaio.

Mariri jendea bere kobazuloetan sartzea gustatzen zaio.

Marirekin hitz egiteko altxatuta egon behar da.